

1. Foruen Enparantza, Plaza Berria: Tuterako sukalea dugu: festa, erlijio, politika eta gizarte arloko ekintzen lekuko paregabea mendeetan zehar. Hiriarren harresiaren bestaldean, Keiles ibaiaren gainean, Barroko itxuraz, XVII. mendean zeben plaza moduan erabiltzeko, eraiki zen. Balkoak XX. mendean Erriberako herri eta familien armarriekin dekoratu ziren. Iturria zegoen tokian egun kioskoa dago. Honen inguruan, Santa Anaren omenez ospatzen diren jai egunetan uztailearen 24tik aurrera, "La Revoltosa" izeneko jokodantza egiten da.

A



A.- Plaza Berrian Erriberako herri eta familia askoren armarrak daude: Ezaguna al duzue baten bat? Euskal izenik eta abizenik ba al dago? Animalirik ikusten al duzue? Nafarroa osoko jendea biltzen zen Erriberan, batez ere artzaiak eta almaditetan aritzen zirenak.

Begira arkupe gainean dauden animaliei eta bi haundien izenak lehen hizkia hemen apuntatu

2. Erlojuaren etxetik Aste Santuan "Volatin" eta "Aingeruaren Jeitsiera" zeremonia zaharrak egiten dira.



1 Foruen Enparantza / Argazkia: www.cdtudelano.com

3. Herrerias kaleak, bere zabalera aintzinako harresiaren fosoiario dio zor. Beheko lorategiak haren azpian dagoen musulmanen hilerria gogoratzen ditu. Ezkerraldean "Moreria" auzoa zabaltzen da. Harresi berriak babesturik, 1120. urtetik 1516 urtera, han musulmanak bizi izan ziren. Hauen arteko hainbat arotza (besteak beste Mahoma Motorra, Hamet eta Ali Aludali) oso trebeak ziren eta Carlos II. eta III. Erregeentzat XIVgarren mendean Baionarako artilleria piezak eramaten lagundu zuten. Nafarroak independentzia galdutakoan ordea, Gaztelako legeak beharturik alde egin behar izan zuten.

4. Huarteko Markesen Jauregi barrokoaren ate nagusia ikusgarria da. Gaur Liburutegia eta Artxiboa denak, beste hainbat bitxikerien artean, Nafarroan dauden eskailera imperial ederrenetarikoa bat gordetzen du.

B

Ikusi al dituzue tronpetak jotzen duten personaia hauek? FAUNOAK dira. Mitologia klasikoan Izadiaren indarrak irudikatzen zituzten. Faunorik famatuena PAN zuen izena eta txirula jotzen zuenean beldur izugarria sortarazten zien entzuten zutenei. Hortik datoz "pánico / panique" erdarazko hitzak.



Ipini hemen FAUNO kopurua.

5. Jesuiten erbestertzea zela eta 1769. urtean, **San Jorge** elizak "El Real" goitizena hartu zuen. XVII. mendeko monastegiaren eraikian Castel Ruiz Kultur Etxea eta Fernando Remacha Musika Eskola-Kontserbatoria daude.

6. Muza Ibn Muza: Onekaren semea izanik, Eneko Aritzaren anaia txikia zen. Nafarroako Erresumari erlijio ezberdinetako bi aiten anaia hauek eman zitoten hasiera. Hemen bertan, Granados kalean, harresi arabiarraren lekuko bakarra dugu ikusgai.

TXIKIEN TXOKOA NOR DA NOR?



KAIXO! Taranbana dut izena.

Zuentzako joko bat prest neukan bainan zierzoak (Erriberako haize fina) Tuteran barna zati guztiak sakabanatu ditu.

Hurrengo horrialdetako gakoak jarraituz eta bi zutabetan dauden izenak eta definizioak lotuz beheko buruauste hau konpontzea lortuko duzue... Ezuste politak zai dituzue!!

- A** ANTSO VII AZKARRA
- B** BERENGELA
- C** DONIBANEKO MAKIL DANTZA
- D** ANTONIA CAPARROSO
- E** JOSÉ MARÍA IRIBARREN
- F** ASSONA
- G** TUTERAKO HERRITARRAK
- B-E** AL-ACMA AL-TUTILI
- E+D** YEHUDA HA LEVI
- K** Aragoiko Inkisizioatik ihes egiten zutenei babesa eman eta inkisikoreei beraiei Ebrora botatzeko mehatxua egin zion jendea.
- 2** Iruñeko lehenengo Erregea zen Eneko Aritzaren alaba eta Hispaniako Hirugarren Erregea izendatu zen Muza Ibn Muza tuterarraren emazte euskalduna zen. Haren senideak Kordobako Emiratoa eta Nafarroa, Asturias, Leon eta Galiziako Erresumetako trononetan eseri ziren.
- Z** Herriko jende gehiena alfabetatu gabea zelarik eta testu sakratuak herriko hizkuntzara itzultzea debekaturik egonik, marrazki bakoitzaren azpian latinezko azalpenak jarri, Biblia ilustratu egiteko agindu zuen, horrela Nafarroako lehen komikia argitaratu.
- 8** Antso Azkarraren arreba eta Rikardo Lehoi-bihotza Errege ingelesaren emaztea, tuterarra hau Inglaterrara sekulan hurbildu ez zen Inglaterrako Erregina bakarra izan zen.
- 16** Tuterako filosofo, mediku eta idazle hau hebraieraz Erdi Aroko poetarik haundiena da. Hasieran erromantzez "Jarcha" izeneko bertso ospetsuak idatzi zituen.
- 3** Tuterako Itsua, Aro Almorabideren poeta, bere amorezko moaxaja eta zéjel izeneko poemengatik famatua zen. Amina emazte izan zuenaren oroimenez elegia bikaina idatzi zuen.
- U** "Paloteo de San Juan" delako ikuskizunak Maskarada eta makildantzaren ezaugarriak batzen ditu. Bertako pertsonaiek, Mayoral (Nagusia), Rabadán (Artzaia), Pepa (herriko emakumea), Alcalde (Alkatea), Angel (Aingerua) eta Diablo (Deabrua) humorez, mihi zorrotzez eta egia esanez, herriko aterak errepasatzen dituzte. Lourdes Auzoan Donibaneren omenez egiten den antzerki-dantza honetan Gaiteoak, Danzantes (Dantzariak) eta Taranbana pertsonaiek ere parte hartze berezia dute.
- 11** Frantsesada Garaian Frantziara eramaten zituzten preso asko askatzea lortu zuen trebetasun eta ausardi handiak bere bizia jokoan jarri.
- 5** Abokatua, gazetaria eta idazlea, Bianako Printzearen fundazioko kidea, Argentinako Tucumango Folklore Akademiako kidea, Real Academia Española de la Lengua erakundeko kidea eta Euskaltzaindiako kidea izan zen tuterarra honek, Nafarroa osoko liburu kostunbrista asko idatzi zuen.

13. San Anton: Tuteran ugari izan ziren erdi aroko iturri haietan bakarra eta ezkutua dugu hau. Oraindik ikusten den konbentu ohian, San Antonio Hospitaleko Fraileek Ebroko Donejakue Bideko erromesei babesa ematen zieten.

14. Atabal estatuaren oinarrian "Camaron de la Isla" artistaren irudia dugu: gaurko elkarbizikidetzaren islada.

15. Santa Cruz kalekaxk Erdi Aroko zapore mozarabea ederki mantentzen du. Uholde haundietan Ebroko urak honeraino heltzen dira.

16. Santa Maria Magdalena, Tuterako erromanikoan bakarra den eliza hau zaharrena da. Merezki du detalle artistikoak patxadaz gozatzeko. Hemen Tuteran bizi zen Pedro López Zamorako lurperatu zuten. Nafarroako Erresumaren lehen "protoalbeitarra" (albeitaria) izatera heldu zen. Gaztelako zenez 1539. urtean egindako epaiketa batean Tuterako hainbat lekukok erromantzez zera zioten: "batzuetan euskaldunekin ari delarik, beste modurik ulertzeko ez eta, ondoan erromantzez egiten dion batekin ikusi dute" eta "etxera etortzen zaizkionei harrera txukunxeagoa egingo liekela eta, gusto handia hartuko lukela euskaraz jakingo balu hamaika aldiz erran du".

D



Eliza batean deabruaren irudia ote? Bai horixe!! Ongi begiratu goiko partean dauden irudiet... sorpresa ederra hartuko duzue eta... Zertan ari da hor? Batzuen ustez galtzagorri hor dabilela gogoratzeko jarri dute.

Zenbat irudi daude Galtzagorriren hilaran? Idatzi kopurua hemen.

17. Ebroko zubiak, 17 arku eta denak ezberdinak ditu, "Humilladero" delako bidegurutzearen aztarnak ikusteko paseo lasaia eskaintzen du besteak beste. Bere garaian Tuterako armarran ikusten den bezala, 3 dorre zeuzkan.

Familia osoarentzako bisita kulturalak. | EUS

Ezkuñuko Tuteran 01

Hiriko historiaren bazter eta denboran barna ibiltzeko bidaia.



Taranbana familia osoaren gidaria izanen duzue.

Ez ohiko ibilbide historiko eta arkitektoniko batean murgiltzera gonbidatzen zaituztegu baina, batez ere, familian edo banaka aritzeko tresna eta jokoa duzue hau. Tuterako bizitzan adituak baino, arituak nahi zaituztegu eta.



Este folleto está disponible en formato digital en nuestra web. Esku horri hau gure web gunean formatu digitalen aurki dezakezu. Aquest follet està disponible en format digital a la nostra web. This brochure is available in digital format on our website. Cette brochure est disponible en format numérique sur notre site.

www.iktlagun.com



Ebroko Zubia Argazkia: Blanca Aldanondo

E



Ebroko zubia: 1808 urtean Napoleon Enperadorearen kontrako gerran tuterakoek Frantziako armada pasa ez zedin zubiko arku bat hautsi zuten. Ea arku hori zein den aurkitzen duzuen!

Hautsitako arkuak zenbatgarrena den ipini.

18. Portal kalea jarraituz ladrilu urdinez osaturiko marra batek Mediavilla erreka markatzen du eta aldapan gora eskuin eta ezker badugu zer ikusi: Dombritz kalean etxe judutarra, aurreraxeago Labastida Jauregia...



Etxe judutarra Dombritz kalean Argazkia: Blanca Aldanondo. Avantarde graffitiak bat Argazkia: Blanca Aldanondo. Labastida Jauregia Argazkia: Blanca Aldanondo.